

TERESA LISIEUXKOA

Teresa Lisieuxkoaren eriotzaren mendeurrena atean dauka. Datorren urteko udazkenean beteko dira 100 urte Teresatxo il zala. 1897. irailaren 30ean, arratsaldeko 7/20 joan jakun mundu onetatik. Eguena zan eta 24 urte besterik euzeukazan. Ordu-tik ona zenbat eta zenbat, txiki et aundi, beraren bizitzaz txundituta geratu izan diran, Jaungoikoak daki bakarrik. Orra or, aipatzekotan, izen batzuk: G. Bernanos, Paul Claudel, F. Mauriac, J. Green, M. van der Meersch, Yves Congar, Hans Urs von Balthasar, Teresa Kalkutakoa. Zer esanik ez gizaldi onetako santuak: Rafael Kalinowski, Teresa Andesetakoa, Edit Stein, Max Kolbe, Juan Vicente Zengotita eta abar. Azkenengo Erromako Aita Santu guztiak be goratu izan dabe Teresatxoren paregabeko mezu ederra. Guztien gaintik, Achilles Ratti, Pio XI jarri bear da. Bere Aitasantualdiko "Zeruko Izarra" deituko dautso Teresari.

Ez bakarrik goi maillako jende artean. Batez be, kristau xume eta xeentzako olako arnas barria izango da Teresatxo. Gaur be asko dira bere bizitzaz eta mezuaz liluratzen diranak. "Eleizaren Katekisma barrian" 67 santuen testu datoz. Esaterako, iru Juan Kurutzekoarenak, lau Teresa Avilakoarenak eta sei Teresa Lisieuxkoarenak. Frantziako gotzainak eta beste ainbat naziñoetako gotzainak be Eleizaren Doktoregoa eskatu dabe Teresarentzat.

Ez da egongo beste santu bat, munduan zear, Frantzizko Asisko-koa kendu ezkeru, ain maitatua eta mirestua. Ta kultura ez bar-

ditetan, bere izena oso ezaguna egiten jaku. Erderaz "Teresita" deituko dautsoe. Frantsesak "le petit Thérèse", ingelesak, ostera, "The little Flower". Portugesak "Teresinha". Mahomatarrak "Santa Fatma" eta euskaldunok "Teresatxo". Ta gaur egunean, Teresa Lisieuxkoa deritxagu ixte guztiok.

Bere liburu famatuena "Arima baten istoria" bera il eta urte batera argitaratu zan. Ta berealaxe agortuko da. Ta ordutik aurrera ixte urtero argitaratu bear izango da Frantzian. Eta beste ainbat izkuntzetara itzulia izango da berealaxe liburu eder ori, "best seller" biurtzeraiño. Teresa il eta amazazpi urte barru 400.000 baiño ale geiago salduko dira. Gaur egunean, irurogei bat izkuntzetara itzulita daukagu. Ingelesera 1901., poloniarra 1902., holandarrara 1905., italiarrara eta potugesera 1906., erderara eta japoniarra 1911., alemanera 1914., hungariarrara 1916., daniarrara 1920., eta olantxe beste ainbat izkuntzetara. 1991. euskeratuko dau Aita Santi Onaindiak. Ta laster agertuko dira euskeraz Teresatxoren lan guztiak.

Maitasunez beteriko Isteria

Teresarengana urreratzean, maitasunaren zirrara, batipat, sentitzen da. Jaungoikoaganako eta pertsonenganako maitasuna. Baita unibertso osoarenganako sentiberatsun fina ere. Orixe da geien bat Teresarengan somatzen dana. Maitasuna dariola agertzen jaku kameldar lekaipe gazte au. Bere bizitza maitasunez beteriko istoria dogu. Bere biotzetik maitasunaren sugarra kenduko bagendu, goitik bera galduko leuke bere nortasuna. Ez litzake izango Teresa Lisieuxkoa beste norbait baiño.

Teresatxok maitatzen baiño ez daki. Bai Jaungoikoa, bai pertsonak eta bai gauza guztiak. Bere Jaungoikoaganako maitasuna oso pertsonala, barru-barrukoa, samur-samurra dogu. Maitasunezko artu-emon sakon-sakonean bizi dau bere sinismena. Teresaren mezurik nagusiena Bibliako herba oneetan datza: "Jaungoikoa maitasuna da" (1Jn, 4, 8)

Pare bat illabete il aurretik, onelako otoitz ederrean laburtuko dau bere bizitza osoa: "Jauna, zure maitasunak lagun egin daust aurtzarotik, neugaz azi da eta orain nik barrendu eziña dodan leza sakona da. Maitasunak maitasuna ekarten dau; olan, ene Jesus, nirea Zugana doa indartsu, darakarren lezea asetu nai leuke, baiña, ail, ez da itsasoan galduriko iruntz tanta bat baiño!.. Zuk maite nauzun beste nik zu maitatzeko, zure maitasuna bera eskuratu bear dot; orduan bakarrik atsedena aurkituko dot. O!, ene Jesus!, bear bada burutapen bat da; baiña uste dot arima bati ezin zinkiola emon neureari emon daustazun baiño geiago; orixegaitik ausartzen naz eskatzen: 'maitatu emon daustazunak neu maite izan nozuen lez' (Jn.17,23). Egun baten, zeruan, Zuk ni baiño geiago maite dozuzala jakiten badot, poztu egingo naz, arima oneek nireak baiño geiago merezi ebela oraindik autorturik; baiña emen beian ezin dot bururatu, esker utsez, nik neuretik meritu izpirik bage, emon daustazun maitasuna baiño aundiagorik" (Ms C, 35r)

Izan be orixe da kristauen bokaziño ederrena. Jesusek argi diñotse bere jarraitzailei: "Ez daustuet zuei morroi esango, ugazabak egiten dauana morroiak ez daki-ta; zuei, adiskide esan daustuet, nire Aitari entzun daustadan guztia jakiñazo daustuet-eta" (Jn 15,15) Elizaren istorian, Karmengo Ordenak kristau fedean geien bat azpimarratu dauana orixe izan da. Jaungoikoa-gaz izan bear doguzan maitasunezko artu-emon sakonak. Teresatxok olantxe biziko dau bere bokaziñoa. Naizta bere azkenengo bi urteak, "gau illunear" sartuta hizi. Origaitik, Max van der Meersch idazlariak diñoskunez, Teresa Lisieuxkoa "biariko santua dogu, fede ezak jotako egunetako santua".

Jesus, maitasun bakarra

Teresarentzat ez dago beste Jaungoikorik, Jesukristo izan ezik. Ez dago bere biotz garbian beste maitasun ederragorik. Jaungoikoa gizon egiten da eta beronen izena Jesus da. Jesus Jauna da Teresaren biotzeko xarmanta eta zoramena. Jesukris-

toren aurrean inondiko sentimenturik zoragarrienak pil-pilean ageri dira. Liluraz eta mirespenez eta esker onez dariola dauka-gu Teresaren biotz gaztea.

Bere idaztietan nonai agertzen dira onelako esaldi unkigariak: "Jesus, zu zara nire adiskide maiteena", "Zugan dot guztia, Jesus", "Nire bizi osoa, Zeu zara", "Nire zorion bakarra zu zara, Jesus", "Oi nire ondasun gorena!", "Nik maite zaitut eta ez dot nai besterik, ene Jesus!". Bere gelako atemarkoan ziri bategaz auxe idatziko dau: "Nire maitasun bakarra, Jesus da". Esaldi au ikusteko aukera neuk be izan neban iazko martiaren 19an. Teresatxori buruz izan genduan amabostaldiko kurtsoan parte artu genduan guztiok, makina bat goza genduan Teresa bizi izan zan konbentu barruan! San Joseren erregalu bezela izan zan guztiontzat.

Teresaren fede mundu osoa Jesukristogan oinarritzen da. Beronen bitartez maite ditu zeru-lurrak. Bai Trinitatearen misterioaren barnean, bai Eleizaren biotzean eta bai unibertsoaren muinean Jesukristoren presentzia umilla aurkitzen dau. Bere bokaziñoa "Jesus maitatu eta maite eraginazotea" baiño ez da izango.

Irutasun Santuaren misterio aundia bera be Jesusengan maite dau.

"Zu zeu gordetzea da maitasunezko bizitza,
Hitz kreatugabea, nire Jainkoaren Hitzza,
Ah! badakizu, Jesus Jainko, maite zaitut nik,
Maitasun-Izpirituak erretzen nau zure sutatik;
maitatuz dut Aita niregana ekartzen,
nire bihotz ahulak behin betiko du gordetzen.
Oi Hirutasun! nire Maitasunaren katibu
bizi zara zu" (Olerkia 17)

Teresatxok Jesukristogan aurkitzen dau unibertso osoa be. Or dago zeru-lurren muina. Jesusen presentzia, bein eta berrero, naturaren errailetan kantauko dau. Esaterako, "Zelinaren kanta"

Frantzisko Asiskoaren "Anaia eguzkiaren eresia" dirudi. Merezki dau olerki orren bi edo iru bertso gogoratzea:

"Zugan ditut, Jesus, gauza guztiak,
baditut gariak, lore erdi-irekiak,
oroilore, urrebotoi, arrosa apainak,
liri zuriaren freskotasuna,
usaina!...

Nik dauzkat lira melodiotsua,
bakardade harmoniotsua,
ibaiak, haitzak, urjauzi ikusgarriak,
adarzabal arin, gazela, katagorriak,
orkatzak!...

Zure maitasunean aurkitzen ditut gainera:
eguzkiak urrez jantzitako palmera,
gaua goiz-urratzearen antz antzekoa,
errekastoaren zurrumurru gozoa,
txoritxo.

Zu, zeure eskuz munduei eusten diezuna,
oihanitsuak landatzen dituzuna,
begirada soil batez emankor bihurtzen dituzuna;
amodiozko begirada batez janaritzen didazu
beti zuk" (Olerkia 18)

Egiatzko mezua

Teresa ez da lañotan dantzan dabillan teorilari bat. Gitxiago, oraindiño, txatxala barritsu bat. Bere mezua berberaren bizitza dogu. Berak esaten daukuna, bere bizitzaz egiztatzen dau. "Pentsamenturik ederrenak be, ez dira ezer egintza barik" idatziko dau (Ms C, 19v) Bere azken egunean, guzurak lekurik ez daukon momentu ikaragarri orretan be, bein eta barriz errepikatuko dau: "Bai, egia besterik ez dot neure bizitzan billatu" (AB 30, 9) Or dago Teresaren sekretua. Origaitik ain erraz maitemintzen gaitu bere mezuak.

KARMEL errebistaren bidez, euskaldunon artean bere bizitza eta mezu paregabekoa nai neukez apurtxo bat azaldu. Baleiteke, bere lagun kutun bateri esan eutsona, neuri be esatea: "Ez nozu benetan ezagutzen nazan moduan" (Kta 224) Ta egia izango da. Baiña bera izango da leena parkatzen daustana. Maitasuna besterik ez daukalako bere biotz garbian. Maitatzeko sortua dala dirudi. Berezkoa dau maitasuna. Egan jarten dau maitasunak, ta beldurrak, ostera, lurra jota (ik. Ms A, 80v).

Maitasuna izango da bere bizitzako ezaugarritik begibista-koena. Ez da iñoiz damutuko maitasunezko bidetik jardunaz. Maitasun ikasketan notarik onenak lortuko ditu. 1986. urtean, Cannesko zinemaldian, Alain Cavalierrek pelikula bat aurkezten dau. "Thérèse" izango da filme orren izena. Jasoten ditu txaloak eta premioak be. OCiren aipamen berezia, esaterako. "La Croix" egunkariaren kazetari batek beste ainbat itaunen artean, beste au be egiten dautso pelikula orren egilleari:

- Zertan datza Teresaren apartekotasun bereziena?

- "Ez dot aurkitu, ezta aurkituko be, beste gazte bat, ainbeste maite izan dauanik ta ain uts gitxi iñoren aurka egin dauanik. Maitasunarenugarrez eta inotzentiaren indarrez beterik egoan Teresaren biotz barnea."

Teresa Lisieuxkoa "maitasunezko zibilizazioan" oso osorik murgilduta bizi izan zan. Urteak joan eta urteak etorri, Teresa-txok beti izango dau gorengo postu bat "maitasunezko zibilizazio" zoragarri orretan.

Andoni Olea